



Ander Perez

◆ ARGIAKO BLOGARIA ETA KAZETARIA

Irrati bat etxeko balkoian

IRUÑEKO etxeko egongelan, gurasok apal batean gordetzen zituzten biniloen artean, bazen bat (bada), bereziki arreta erakartzen zidana. Armiarma itxurako espaziontzi baten alboan, letra gorri handietan ageri zen *La guerra de los mundos* (*Munduen arteko gerra*).

Liluratzen ninduen istorioak, edo, hobeki esanda, istorio horren inguruan sortutako gertakariak: 1938ko urriaren 30ean, Orson Wellesek irrati bidez eman zuen kontakizuna, eta estralurtarrak New Jersey lurretan zirela azaldu zuen. Esatariak kontakizunari emandako erreallismoak, eta albistegi itxurak, kaosa zabaldu zuen Amerikako Estatu Batuetako jendartearen, jendeak sinistu baizuen Martetik zetorren inbasioa. Gertakizunak, zalantzarik gabe, komunikazioaren boterea erakutsi zuen. Aurten beteko dira orduetik 75 urte.

2004ko abuztuaren 16an, Iruñeko Barcina alkateak Euskal Jai Gaztetxea suntsitzea erabaki zuen, polizia hara bidaliz eta bost egun iraunen zuen husteari hasiera emanez. Iruindar askori ahaztezina zaigun aste horretan, poliziaren batek gomazko pilota bat jaurtitzen zuen bitartean, gazte batek gaztetxearen aldeko garra-sia airera botatzen zuen unean eta bizilagunen batek lapikoa protesta eginez kolpatzen zuen momentuan, Alde Zaharreko auzokideen batek irrati atera zuen etxeko balkoira, Iruñeko Eguzki irrati libreak gertakizunaren inguruan egiten ari zen jarraipen berezia etxe barrutik kalera atera nahi izan balu bezala. Gutxira, beste hainbat auzokidek keinu txiki hori imitatu zuten, transistorea lorontzia artera ekarri, edo etxe

barruan mantendu baina bolu-mena altxatuz. Eta, gogoan dut, Kaldereria kalean, poliziaren oldarraldi batetik ihesi korrikan ari ginen bitartean, irrati entzun nuela, eta joko ederra egin zitzaidala gertatzen ari zen hori, aldi berean, lau haizetatik entzuten egotea. Gaurko perspektibatik ikusita, herri komunikazioaren gailurra iruditzen zait keinu txiki eta espontaneo hori. Orson Wellesen emanaldiak azalean utzitako irratiaren botere hura jasotzen eta bere erara erabiltzen jaki izan zuen Iruñeko herriak.

Ez dakit txikitako biniloarengatik den, eta ez dakit Iruñeko Alde Zaharrean bizi izandako horregatik izanen ote den, baina, betidanik, xarma eta edertasun handiko komunikabidea iruditu izan zait irrati. Agian, horregatik, are tristeagoa da gaurko eguna. Ni jaio nintzen urte berean jaio zen, Iruñean ere, Euskalerrria Irratia. Eta gaur, 24 urte beranduago, berriro ere, lizentziarik ez ematea erabaki du UPNren gobernuak.

Albiste jakin eta denbora gutxira, mespretxu eta gorroto hitzak besterik ez zaizkit okurritzen Nafarroako kulturaren kontra jokatu eta bere buruari Nafarroako Kultur Kontseilari deitzera ausartzen denarentzat. Baina, zorionez, badakit, hasierako haserreak alde egiten digun heinean, injustizia berri honek arrazoi berri bat emanen digula Iruñea euskaldun baten alde sinisten jarraitu eta lanean segitzeko. Eta arrazoi ematen digula, zergatik ez, FMko 91.4 sintonizatu eta irrati Iruñerri osoko balkoi guztietara ateratzeko. ■



• IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza Plaza



Doinua: Gai horrek badu mamia.



XDZ

Lekeitioko galarrena

Laurogehita lauко negu beltzenetan beltzena, azaroaren hogean gorritz tindatu zena, kontsulta bat izan baitzen krimen baten eszena. Tiro hotsaren ondoren Bilbo handian barrena berunezko isiltasunaz bete zenean dena, Lekeitioko portuan hasi zen galarrena.

Santi Brouard erahil zuten irauliz egoera, Lopez Ocaña, Morcillo eta Amedo bera, errudunak izan arren libre ziren ateral! Audientzi Nazionalera horiek salatzeraz, josi nahian txakurraren hagin-kada minbera, otsoari babes eske joatea beste da.

Amedok aitortu arren Morcilloren fardela, bistan da hitz ho(r)jei diru usaina dariela. Justiziak hautsita du hiruko erregela, baina hemen present dugu Madril en ez bezela, nahiz eta leiho berriei ireki errezela, oraindik itxi gabeko zauri asko daudela. ■